




ESKOLAKO AGENDA 21 LAUDIO

2015-2016



ZARATA

SARRERA

Jaun andere agurgarriak:

Foro honetara Eskolako Agenda 21 proiektuan parte hartu dugun Laudioko 2.558 ikasleen izenean gatoz. Herriko 7 ikastetxeetako ikaskideok **Zarata** gaia landu dugu ikasturte honetan zehar. Diagnostika egin ondoren, konpromisoak eta hobekuntza proposamenak egin ditugu. Apirilaren 20an ikasleak bildu egin ginen egindako lana bateratzeko, iritziak, ikuspuntuak, etab. trukatzeko eta baita, konpromiso eta proposamen garrantzitsuenak hautatzeko ere¹. Jarraian, egin dugun lanaren emaitzak aurkeztu nahi dizkizuegu.

Familiei, irakasleei eta Laudioko hiritarrei eskerrak eman nahi dizkizuegu, zuen laguntza eta partaidetzarekin posible egin baituzue. Eskerrik asko!

KALEKO ZARATA MURRIZTEA

Gure herriko kaleetara atera gara entzuten diren soinuak aztertzeraz eta zaratak desberdinu eta neurtu ditugu, gutako batzuk sonometroa eskuan eta guzti. Gainera, Udaleko zarata mapa aztertu dugu eta gure emaitzekin alderatu ditugu.

Gure **ondorio nagusiak** hurrengoak dira:

1. Gehien gustatzen zaizkigun soinuak naturak sortutakoak dira: haizea, iturriaren ura, txorien kantak... eta gutxien gizakiok egindakoak: oihuak, trafikoa, obrak, anbulantziak, trena...
2. Gure herriko leku zaratatsuenak tren geltokia, errepideak eta udaletxeko plaza dira.
3. Halaber, Zumalakarregi kalea, Nerbioi plaza, Ugarte eta Lamuza auzoak (Lamuza eta Viña Vieja kaleen arteko ingurua), eta Areta eta Vitoria kaleen arteko ingurua ere, zaratatsuak direla uste dugu. Arrazoiak: Trafikoa, obrak, lantegiak, jendea eta tabernak dira.
4. Zarata-mapatik atentzioa gehien deitu diguna: errepidetan eta lantegi-gunetan sortzen den zarata izan da.
5. Aldiz, alde lasaienak eta isilenak: Lezeaga eta Sagasti kaleak dira.

1

6. Gainera, gehienok asteburuetan, jaietan edo pintxo pote egunetan zarata handiagoa sortzen dela uste dugu.
7. Laudion zaratak sortzen dituen arazo nagusienak, alde batetik, osasunarekin erlazionatuta daude (atsedenik ez hartzea, lo egin ezin izatea, tentsioa, estresa eta antsietatea) eta bestaldetik, errespetua eta heziketarekin erlazionatzen dira. Horretaz gain, kutsadura sortzen du.

Gai honekiko guk honako **konpromisoak** hartuko ditugu:

1. *Zarata saihestu gure eguneroko bizitzan, besteenganako errespetua izan behar dugulako eta osasunerako kaltegarria delako.*
2. *Zarata egiteko ordutegiak errespetatzea (ordu berezietan zaratarik ez ateratzea).*
3. Musikaren bolumena kontrolatzea.

Eta **Udalari** ondorengo **eskatzen** diogu:

1. *Zarata egiteko ordua finkatzea.*
2. *Guztiok bete beharreko plan bat abian jartzea, herriko kotxeen gutxiagotzea, astiroago ibiltzea, kamioiak erdigunetik ez pasatzea eta pertsonen arteko elkarrizketa bultzatzea (oihuak alde batera utziz eta oinezko jarrera bultzatuz).*
3. *Tren geltokiari dagokionez, trenbideak berritzea eta bozgorailutik esaten dituzten esaldiak motzagoak eta zehatzagoak izatea.*
4. *Zorrotzago jokatzeko zarataren inguruan dauden lege eta arauekin (ordutegiak, zarata-maila...) eta isunak jartzea beharrezkoa bada (Ugarte eta Aretan).*
5. *Frontoiko sabaiaren egitura aldatzea, erreberberazio handia gertatzen baita sabaiaren egitura dela eta.*
6. Autobus geltokia erdigunetik aldatzea. Laudiotik pasatzean trenak egiten duen ibilbidea lurperatzen saiatzea, behintzat, tarte batzuk.
7. Motokros gunea lekuz aldatzea.
8. Zarata gutxitzen duen errepidea jartzea.
9. Jendeari jakinaraztea, zarataren inguruan sentsibilizazio kanpaina bat antolatuz.
10. Udaletxe inguruan kamerak jartzea jendearen portaerak kontrolatzeko.
11. Kanpaia gutxiagotan jotzea.
12. Zarata neurtzeko semaforo bat leku zaratatsuetan jartzea.

Eta **herritarrei**:

1. *Kotxeak erabili ordez oinez, bizikletaz edo garraio publikoz bidaiatzeko ohitura bultzatzea (ahal izanez gero, kotxe elektrikoak erabiltzea).*
2. *Zaratak sortzen duen kalteaz informatzea.*
3. *Ordutegiak errespetatzea.*
4. *Herritarren jarrera hobetzea, arauak betetzen edo ez oihukatzen eta kaletik isilago ibiltzen (udaletxeko plazan jendeari garrasi ez egiteko eskatzea) adibidez.*
5. *Ohitura txarrak gdatzerakoan kontrolatzea (klaxona).*

TRAFIKOAREN ZARATA

Gure herrian trafiko handia dago eta arazo asko sortzen ditu, zaratarena azpimarratzekoa da.

Hobetzeko arlo honi buruzko **ondorioak** hauek izan dira:

1. *Laudion zarata-iturri garrantzitsuenetako bat trafikoarena da, batez ere herriko erdigunean, Zumalakarregi kalean, Aldaikorreka plazan eta Osakidetza ondoko errotondan.*
2. *Trafikoa gehien entzuten diren lekuak errepidea eta Etorbide Nagusia dira, batez ere 15:00 –etan, nahiz eta Udalak ezarritako zarata-maila jasangarria ez den gainditzen.*
3. *Eta gutxien entzuten denetan Lamuza parkea eta liburutegia, eguneko ordu guztietan.*

Gure **konpromisoak** hauek dira:

1. *Laudion zehar ibiltzeko eta eskolara etortzeko oinez edo bizikletaz ibiltzen saiatzea, kotxea hainbeste ez erabiltzeko.*
2. *Garraio publikoak gehiago erabiltzea herritik herrira mugitzeko eta ikastetxera etortzeko.*

Udalari proposatzen diogu:

1. *Guztiok bete beharreko plan bat abian jartzea herriko kotxeen gutxiagotzea (eta oinezko jarrera bultzatuz), astiroago ibiltzea, trafikoa (kamioiak batez ere) erdigunetik ez pasatzea, autoen eta kamioien mugimendua murriztea, batez ere gauez.*
2. *Errepide alboetan zuhaitzak edo panelak jartzea.*
3. *Bide-gorri gehiago jartzea.*
4. *Ume txikientzako arduradun bat jartzea ikastolara igotzen laguntzeko.*
5. *Autoak etxebizitzetatik urrunago pasaraztea.*

6. Errepideetako zarata mailak gogortzea hala nola isunak ere.
7. Berdeguneak ugaritzea, bereziki jolastokietako zuhaitzak.
8. Garraio publikoa arrazoizko prezioan jartzea.
9. Sentsibilizazio-kanpainak egitea.
10. Zaratari buruzko ekimenak eta hitzaldiak antolatzea.
11. Zabor kamioiek bilketa egiteko, lo ordutegia errespetatzea.

Eta herritarrei:

1. *Bide-gorriak errespetatzea.*
2. *Kotxea herrian uztera konprometitzea. Eskolara oinez edo bizikletaz etortzea.*
3. *Garraio publikoa gehiago erabiltzera konprometitzea.*
4. *Erdigunean abiadura murriztea.*
5. *Soinua gutxitzeko tresnak erabiltzea: pneumatikoak, motor enkapsulatuak, isilgailu eta erresonatzaile hobetoak, etab.*
6. *Motor txikiak dituzten kotxeak erabiltzea.*
7. *Norberaren autoak sortzen duen zarata kontrolpean edukitzea.*

ETXEKO ZARATA MURRIZTEA ETA KOMUNIKAZIOA HOBETZEA

Senideen arteko komunikazioan eta etxean egiten dugun zaratan ere arreta jarri dugu eta ateratako **ondorio** nagusia honako hau da:

1. Bai auzokideak bai familiakoak nahiko zaratatsuak gara; oihuak, txakurren hotsak, etxeako obrak, mahaien eta aulkien zaratak, musika, telebista, tresna elektrikoaren soinua eta abar entzuten baitira.

Arrazoi honengatik hurrengo **konpromisoak** hartzen ditugu:

1. *Gure ahots tonua (oihukatu gabe), sortzen ditugun zaratak kontrolatzea eta txandak errespetatzea.*
2. *Sentimenduak kontatzea, "nola zauden" galdetzerakoan.*
3. *Elkarrekin gehiago hitz egitea.*
4. *Mugikorraren erabilera murriztu oztoporik ez izateko.*
5. *Gutxi bat ateratzean lasaitu arte ez kontatzea.*
6. *Telebista, irratia ... denbora guztian piztuta ez izatea.*

Eta herritarrei:

1. *Etxeko tresnen bolumena kontrolatzea.*
2. *Baxuago eta oihukatu gabe hitz egitea.*
3. *Auzokideak errespetatzea etxeko zaratak murriztuz.*
4. *Txakurrak hobeto zaintzea.*
5. *Arauak betetzea.*

ZARATA MAILA ALTUAK ETXEBIZITZA ZONALDEETAN

Etxebizitza zonalde batzuetan ere zarataren arazoa jasaten da. Aztertu eta gero ateratako **ondorio** nagusia honako hau izan da:

1. Prebentzio neurriak jartzen saiatu arren emaitzak ez dira onak zaratak oso jatorri desberdinak dituelako.

Guk honako **konpromisoak** hartuko ditugu:

1. Leiho onak erabiltzea, errezelak ere laguntzen dute intsonorizazio prozesuan.
2. Musika entzutean aurikularrak erabiltzea edo baxuago entzun.

Udalari proposatzen diogu:

1. Serioski hartzea lege apurketak.
2. Herritarrak informatzea.
3. Gaueko 10etatik aurrera kotxerik ez ibiltzea zentroko errepideetatik eta autopistaz joaten behartzea.

Eta herritarrei:

1. Leiho onak erabiltzea.
2. Errezelak erabiltzea laguntzen dutelako intsonorizazio prozesuan.
3. Musika entzutean aurikularrak erabiltzea.
4. Autoak etxebizitzetatik urrunago pasaraztea.

Ikastetxean ere zarata eguneroko kontua da eta batzuetan arazoak sorten ditu. Zarata hainbat ikastetxeetako lekutan neurtu dugu eta zarata murrizteko materialen eraginkortasuna probatzeko esperimentu bat egin dugu.

Egoera aztertu ondoren atera ditugun **ondorioak** hauek izan dira:

1. Leku zaratatsuenak, pasilloa (batez ere 11:00–etan), jantokia, patioa, teknologia gela, frontoia (batez ere 13:00-ta inguruan) eta errepidea dira. Gainera, ia leku guzti hauetan Udalak ezarritako zarata-maila jasangarria gaitzen da.
2. Zarata-mapatik atentzioa gehien deitu diguna da, zarata arauak ez direla batere errespetatzen. Horretaz gain, errepideen zarata maila hain altua eta gure ikastolarena hain baxua izatea. Audio ikastolako zarata maila, beste ikastetxeetako baino baxuagoa da.
3. Zarata-iturri nagusiak ikasleak eta teknologia gelako makinak dira.
4. Leku isilenak, ordea, pasilloa klase orduetan eta liburutegia dira.
5. Elkar komunikatzen garenean zarata badago mezua ez da ondo ulertzen. Komunikazio ona behar da bestela eskolan ezer ulertzeko eta ikasteko gai ez garelako izango.

Hauek dira guk hartuko ditugun **konpromisoak**:

1. *Aulkiak eta mahaiak mugitzean, zarata handia ateratzen dugula konturatu garenez, takoak jartzeko konpromisoa hartu dugu arazo honi aurre egiteko.*

Proposamenak Udalari:

1. *Gelak intsonorizatzea.*
2. *Semaforo bat klasean jartzea, gure zaratak kontrolatzeko.*
3. *Panel akustikoak jartzea trenbideen ondoan.*
4. *Zaratari buruzko arau finkoak ezartzea.*
5. *Ikastetxean sentikortze kanpainak egitea.*
6. *Ikastetxeak eta errepideak aldentzea.*

Gure arteko komunikazioa aztertu dugu eta hobetu dezakegula ikusi dugu.

Atera dugun **ondorio** nagusia hau da:

1. Besteekin harremanak izatea oso garrantzitsua da. Pertsonen arteko erlazio onak mantentzen laguntzen baitu: lagunak izateko, laguntza eskatzeko, ez haserretzeko jolasean gaudenean, elkar ulertzeko eta sentimenduak adierazteko. Ulertzeraz eta aditzera eramatea, pertsonen arteko elkarbizitza eta harmonia errazten du. Horregatik, hiltunen arteko aberastasun pertsonala izan daitekeela uste dugu.

Guk ondorengo **konpromisoak** hartuko ditugu:

1. *Besteen ideiak onartzea*
2. Besteak entzutea.
3. Lasaitasunez hitz egitea eta ondo ahoskatzea, hau da, garrasika ez hitz egitea.
4. Barkamena eskatzea eta besteak barkatzea.
5. Leku isilak bilatzea.

TABERNEN ZARATA

Tabernak dauden kaleetan auzokideek zaratarekin egunero bizi behar dute. Horregatik, guk honako **konpromisoak** hartuko ditugu:

1. *Tabernatik kanpo gaudenean, gauzez kalean ez oihukatzea.*

Udalari proposatzen diogu:

1. Sentsibilizazio kanpainak egitea.

Eta **herritarrei:**

1. Besteenganako errespetua edukitzea.

LOKALEN ZARATA

Gutako batzuek lagunekin aisialdia pasatzeko lokalak alokatuta dauzkagu. Dirudienez, herrian lokalek arazo batzuk sortzen dituzte eta guk hauek aztertzeko rol jolas bat egin dugu, horrela auzokide, udala eta lokalen jabeen lekuan ere jarri gara.

Ateratako **ondorio** nagusiak honako hauek izan dira:

1. Interes desberdinak daudenez, zaila da ados jartzea. Eta gure ustez, alde guztiek dute arazoia. Horregatik, guztien artean lagundu behar dugu bizikidetasuna hobetzeko.

2. Lonjak alokatzeak arazoak ekar ditzake. Arazo nagusia zarata asko eta garbitasun gutxi egotea da. Hau dela eta konponbideak jarri behar dira.
3. Hainbat ikuspuntu daude ...
 - ...auzokideena: lokaleko jabeak lokalak soinu gabetu behar dute, musika eta telebista oso altu ez jartzea eskatzen dute eta adostutako ordutik aurrera zarata sortzen duten lokalei isuna jarri.
 - ...Laudioko udalarena: lonjak gazteen autonomia hobetzeko oso ondo daude baina gure ustez sortutako zarata Udaltzaingoen bidez kontrolatu beharko litzateke.
 - ...lokalen jabeena: lokala alokatuta egoteak diru sarrera suposatzen du, baina gazteek konpromisoak hartu beharko lituzkete auzokideak ez molestatzeko.
 - ...lokaleko erabiltzaileena: lokalen mantenua hobetzea, Laudioko Udalak gazteentzako lekuak ezartzea eta bizilagunen salaketatik defendatu ahal izatea nahi dute.

Guk honako **konpromisoak** hartuko ditugu:

1. *Gehieneko soinu-maila errespetatzea.*
2. *Barne-arauak adostea eta ondoren, bete.*
3. *Ordu jakin batzuetan (lo orduak) lokalen zarata kontrolatzea: bolumena jaitsiz, baxuago hitz egiten eta orokorrean zarata gutxiago egiten.*
4. *Ez oihukatzea barruan.*
5. *Intsonorizazio prozesu merkeak erabiltzea adibidez oihalak eta arrautzetarako kaxak.*
6. Aurikularrak erabiltzea.
7. Musika oso altu ez jartzea.

Udalari proposatzen diogu:

1. *Udalak gazteei lokalak eskaintzea, adostasun minimo batera helduz.*
2. *Lokalen jabeek, lokal bat alokatu baino lehen baldintza jakin batzuk betetzen dituztela ziurtatzea.*
3. *Lokalen intsonorizaziorako diru-laguntzak egotea: leiho bikoitzak ipintzeko ...*
4. *Lokal zaratatsuetan interbentzio handiagoa egotea.*
5. *Helduei entzuteaz gain, gazteen ikuspuntua kontuan hartzea.*
6. Legedia zehatza izatea eta zarata kontrolatzeko ordutegi bat finkatzea.
7. Gazteak informatzea eta laguntzea bizikidetasun eta intsonorizazio prozesuetan.
8. Legeak apurtzen badituzte abisatzea, eta errepikatzen bada isuna jartzea.

Eta **herritarrei:**

1. *Lokal bat alokairuan jarri baino lehen intsonorizatzea.*
2. *Gazteen lokalekiko errespetua, eta gazteak izan zirenean gogoratzea. Batez ere egun berezietan.*
3. Alfonbrak erabiltzea lokalaren gainean dauden etxeetan.

Hauek izan dira Laudioko neska mutilek Agenda 21ari egin dizkiogun ekarpenak. Eskerrak eman nahi dizkizuegu eskaini diguzuen arreta eta denboragatik.

Zarata murriztearen alde egindako lanak eta ahaleginak zuen onarpena izatea espero dugu eta denon partaidetzarekin hiri jasangarriagoa lortzeko bidean pauso txiki bat izatearen esperantzarekin, agurtzen zaituztegu.

Eskerrik asko eta hurrengora arte.